

EUSKAL KULTURA 1960-1970 EREIN-AROA

Jerardo Elortza

Kultur-munduak Euskal Herrian 1960-70 hamarkadan zehar jarraitu zuen ibilbidea ez zen ez erraza izan. Egia da aurreko urteetako laztasunak eta gogorkeriak iadanik zertxobait arintzen eta biguntzen hasiak zirela, baina, zenbaitek bestela pentsatzen badu ere, frankismoak sendo eta tinko zirauen oraindik gizarte mailako esparrurik garrantzitsuenetan. Kulturaren edozein arlori heltzen bazitzaion, ez zen eragozpena eta oztopoa besterik agertzen nonahitik: diru-eza, laguntza ofizialen urritasuna, baimenak lortzeko zailtasunak, zentsuraren aldetiko trabak eta debekuak, eta antzeko behaztopoak garai hartako aginteak eskaintzen zizkigun egunoroko opariak genituen.

Baldin eta gauzatu nahi zen kultur-ekintza euskaraz bideratzeko asmoa azaltzen bage-nuen, egoera are larriago eta korapilotsuagoa bihurtzen zitzaigun, ofizialki nortasunik eta iza-erarik ez zuen hizkuntza batez baliatu beharre-an aurkitzen baikin. Euskaraz liburuak argita-ratzeko nolabaiteko baimena egon bazegoen 1948. urteaz geroztik, baina 1950-1960 bitarte-an liburuak tantaka kaleratzen ziren, hogeiren bat urtean; izan ere, frankismoaren bigarren hamarkada horretan ez baitzen zeregin makala izan, gerra ondorengo lehen hamar urteetako debeku formalak nolabait gaindituz, euskarazko liburu eta aldizkariak apurka-apurka publikatu ahal izatea Hego Euskal Herrian. Irratietan eta egunoroko prentsa idatzian euskararen presen-tzia hutsaren hurrengo zen, eta irakaskuntzan egin ziren saio apalak —Elbira Zipitriarena, adi-bidez— erabat ezkutukoak genituen, klandesti-noak alegia.

Anaien arteko gatazka zibilak euskal gizar-teari ekarri zion hondamendia betiko bilaka ez zedin, gerraosteko lehenengo hogeitaz urteetan zenbait eragile idealista saiatu zen —Amerika

CULTURA VASCA 1960-1970 LA SIEMBRA

Jerardo Elortza

El desarrollo de la vida cultural de Euskal Herria durante la década 1960-1970 no fue nada fácil. Es verdad que el terror y la violencia de los años anteriores a esta época habían comenzado ya a remitir en cierto modo, pero aunque haya quien piense lo contrario, el franquismo se mantenía firme y sólido en las áreas sociales más significativas. Los obstáculos y las trabas aparecían por doquier en cualquier ámbito de la cultura: la falta de recursos económicos, la escasez de ayudas oficiales, las dificultades para conseguir permisos, los impedimentos y prohibiciones de la censura y obstáculos de la misma naturaleza eran los regalos con que las autoridades de aquella época nos obsequiaban.

A pesar de que expresáramos la intención de vehiculizar las actividades culturales que deseábamos realizar en euskara, la situación era cada vez más grave y complicada por el hecho de encontrarnos ante la necesidad de utilizar una lengua que oficialmente carecía de identidad y de carácter. Existía, de alguna manera, permiso para publicar libros en euskara a partir de 1948, pero durante el período 1950-1960 no se publicaron muchos, algo así como una veintena al año. De hecho, durante esa segunda década del franquismo no resultó nada fácil la tarea de publicar paulatinamente libros y revistas en euskara, tras haber superado las prohibiciones formales de la primera década. La presencia del euskara en la radio y en la prensa diaria era casi nula, y los intentos que se hicieron en el campo de la enseñanza —el de Elbira Zipitria, por ejemplo— fueron totalmente clandestinos.

Para que el caos que el conflicto civil había sembrado en la sociedad vasca no se perpetuara, durante los primeros veinte años posteriores a la guerra hubo idealistas, como en otros estados de América y de Europa, que se empe-

eta Europako hainbat estatutan hasieran, Euskal Herrian 1950etik aurrera— sakabanatuta eta etsita gelditu ziren kultur-gizonen indarrak biltzen eta birregituratzen. Erresistentzia-garai horretan kixote batzuek burututako lan ikaragarriari eskerrak euskal kulturen ari ziren belau-naldien arteko etena ez zen erabatekoa izan. Oraindik oinarri oso irmeak izan ez arren, behin behineko zubigintza eta jarraipena ziurtatu zirenean, 1960 inguruan euskal munduan murgildu zen gazteria berriak urrats seguruagoak eman ahal izan zituen.

Dena den, aztertzen dihardugun sasoi hartan ere ez zuten orduko kulturgileek gauza arranditsu eta distiratsuak mamitzeko aukera larregi: arestian aipatu denez, agintari politikoei euskal gaietarako erakusten zuten jarrera zeharo aurkakoa zen; lanerako bitarteko gutxi ezezik, langileak ere ez ziren aski; beste inor ez zegoe-lako, sail gehiegitan sartzeko premia edukitzen zuten sarritan, inolako espezializaziorik gabe eta benetako pluriempleo kulturean arituz; nahiz eta komunikabide-arloan egoera pittin bat hobetu, hedadura txikia ohi zuten orduko euskal lanek; horrelako lanbideren bati ekiten zionak ez zuen dirubide handirik bereganatzen, zorpideren bat bai, agian; fede moduko bat behar zen euskalgintzari heltzeko, egindakoaren fruituak nekez eta noizbehinka soilik ikusten baitziren.

Hala ere, lan aipagarriak, are gehiago, inportanteak moldatu eta plazaratu ziren hamar urte hauetan. Ez zuten une hartan bertan oihartzun gehiegi eurenganatu, baina geroztik loratu den emaitza askoren hazia orduantxe bota zen euskal soroan. Horixe izan baitzen, batez ere, garai hura: Erein-Aroa. Azken urteotan hizkuntza, literatura, musika, arte eder, irakaskuntza, komunikabide eta abarretan nabaritzen ari garen aurrerapausu nabarmen eta pozgarri asko ez genuke seguruenik somatu ere egingo, duela 30 bat urteko belaunaldi hark ereintza-lanean gogor eta sendo jardun izan ez balu. Era berean, egungo oker eta akats batzuk ere aldi hartan dutela jatorri eta sorburua esango nuke.

Hurrengo ataletan euskal kulturak 1960-1970 hamarkadan izan zuen bilakabidea aztertuko da. Argiago gerta dadin, arloka banatu da,

ñaron a partir de 1950, en aunar fuerzas y restablecer las actividades de los agentes culturales, que habían quedado debilitados y diseminados por Euskal Herria. Durante esa época de resistencia, gracias a la enorme labor realizada por ciertos “quijotes”, la ruptura que se originó entre las generaciones dedicadas al desarrollo de la cultura vasca no fue absoluta. A pesar de que las bases no eran sólidas todavía, una vez asegurada la continuidad, alrededor de 1960, las nuevas generaciones que se incorporaron a la cultura vasca pudieron avanzar por un terreno más seguro.

En cualquier caso, durante el período que nos ocupa, los agentes culturales de esa época no tuvieron muchas oportunidades de realizar obras brillantes: como he dicho anteriormente, las autoridades políticas mostraban una actitud totalmente contraria hacia los temas vascos; se contaba con pocos medios y el personal era escaso; estas deficiencias y la urgencia de intervenir en ciertas áreas obligaban a que las personas se pluriemplearan culturalmente y a que realizaran labores en campos de la cultura para los que no estaban especialmente preparados; a pesar de que en los medios de comunicación la situación había mejorado en cierto modo, las obras vascas de la época tenían muy poca difusión; los beneficios que pudieran percibir las personas que se arriesgaban a realizar ese tipo de actividades eran menores que las deudas que contraían; se trataba de una especie de acto de fe con respecto al quehacer cultural vasco, ya que los frutos de la labor realizada eran escasos.

A pesar de ello, durante estos diez años se publicaron importantes obras reseñables. No tuvieron un gran eco en su época, pero fueron la semilla de un gran número de obras que han florecido con posterioridad. En ello consistió precisamente la labor cultural de esa época: en la siembra. Si aquella generación de hace 30 años no hubiera realizado con ahínco su labor de siembra no habríamos tenido la posibilidad de poder disfrutar en la actualidad del impresionante avance acaecido en la lengua, la literatura, la música, las bellas artes, la enseñanza, los medios de comunicación, etc. Por otro lado, podríamos decir que algunos de los fallos y de las deficiencias actuales tuvieron su origen en esa época.

Arte Ederretakoa alde batera lagata, noski, katalogo honen beste sail batean zehatz-mehatz azaltzen delako.

Erakundeak.

Gerraren zurrunbiloan ez ziren alderdi politiko eta sindikatuak bakarrik suntsitu. Kultur erakunde eta elkarteek ere pairatu behar izan zituzten irabazleek ezarritako lege zorrotzen ondorioak. Desagertuen artean gogora datozkidan batzuk honako hauek lirateke: Eusko Ikaskuntza, Euskal Herri osoan zabaldua; Euskaltzaleak, hau ere aski hedatua; Euskararen Adiskideak, Nafarroan ari zena; Jaungoiko-Zale, Zornotzan kokatua eta batez ere Bizkaiko abade idazleak biltzen zituen; Euskerazaleak Bilbo aldean, etab.

Triskantza haren ondoren, kostata, baina zutik irautea lortu zuen erakunde bakarrenetakoa Euskaltzaindia izan genuen. Horixe, doi-doi eta nekez iraun besterik ez. Ordurako R. M^a Azkue zahartua zegoen eta hasierako urte latz eta negargarri haietan ez zuen nonbait adorerik eta ahalik eduki, Euskal Akademia gerra aurreko egoerara itzularazteko. Federiko Krutwig-ek, Azkueren oniritziz, suspertu zuen apur bat 1950etik aurrera, euskaltzain berriak izendatuz. Diru-laguntzak oraindik oso murrizak baziren ere, ahal zuen neurrian, lan garrantzitsuak burutu zituen Euskaltzaindiak: ohiko bilkura eta batzarrez gain (zazpi Biltzar Nagusi ospatu ziren 1956-1968 bitartean), gure hizkuntzaz arduratzzen zen elkargo bakarra izanik, literatur-sariak eratu behar izan zituen, bertsolari-txapelketak antolatu, euskal antzertia bultzatu, alfabetatze-euskalduntze programak babestu, etab. Alabaina hamarkada honetan Euskaltzaindiari egokitu zitzaion zereginik gaitzena eta, aldi berean, oinarrizkoena euskararen batasunarena izan zen. Aurreraxeago ikusiko denez, gerora funtsezkoak gertatu ziren erabakiak hartu eta pausuak eman zituzten euskaltzainek, batik-bat 1968an Arantzazun ospatu zen Biltzarraz geroztik.

Gerraosteko beste bi elkarte ere aipagarriak ditugu: Real Sociedad Bascongada de los

En los apartados que se desarrollan a continuación se analizará la evolución de la cultura vasca en la década comprendida entre 1960 y 1970. Para que resulte más claro se ha dividido por áreas, dejando de lado la correspondiente a las Bellas Artes, que se expondrá con detalle en otra sección de este catálogo.

Las Instituciones.

En la vorágine de la guerra no desaparecieron sólo los partidos políticos y los sindicatos. Las instituciones y asociaciones culturales sufrieron también las consecuencias de las severas leyes que impusieron los vencedores. Entre las instituciones culturales desaparecidas, podría señalar: *Eusko Ikaskuntza*, extendida por toda Euskal Herria; *Euskaltzaleak*, igualmente enraizada; *Euskararen Adiskideak*, que desarrollaba su actividad en Navarra; *Jaungoiko-Zale*, con sede en Zornotza y que reunía a curas escritores de Bizkaia; *Euskerazaleak*, en Bilbao.

Euskaltzaindia fue una de las pocas instituciones que consiguió sobrevivir a la desaparición, a pesar de todas las dificultades que tuvo que superar para ello. Para entonces, R. M^a de Azkue había envejecido y durante aquellos tiempos tristes y difíciles no tuvo ni ánimos ni posibilidades de restituir la Academia Vasca a la situación en que se encontraba antes de la guerra. Fue F. Krutwig quien, a partir de 1950, y con el beneplácito de Azkue la recuperara de algún modo, nombrando nuevos académicos. A pesar de que las ayudas económicas eran todavía escasas, Euskaltzaindia consiguió realizar trabajos importantes en la medida de sus posibilidades: además de las sesiones ordinarias y de las juntas (se celebraron siete Juntas Generales entre 1956 y 1968) siendo la única institución dedicada a nuestra lengua, constituyó premios literarios, organizó concursos de *bertsolaris*, fomentó el teatro vasco, y patrocinó programas de alfabetización-euskaldunización. Sin embargo, la tarea más ardua y, a la vez, primordial que se encomendó a Euskaltzaindia durante esa década fue la unificación del euskara. Como se verá más adelante, los miembros de la academia tomaron decisiones y sentaron bases que resultarían después fundamentales, sobre todo

Amigos del País (RSBAP) bata, Aranzadi Natur-Zientzetako Elkartea bestea. Jakina da lehena 1764an sortu zuela Peñafiorida-ko Konteak; mende honen hasieran, ordean, oso ahuldurik zegoen Azkoitiko Zalduntxoan Elkartea, eta, 1945 aldera birrantolatu zenean, maila apal batean bederen, gerra aurreko Eusko Ikaskuntzak eta Julio Urkixoren RIEV aldizkari famatuak utzitako hutsunea betetzen saiatu zitzaigun "Bascongada" berria, BRSBAP eta EGAN aldizkarien bitartez bereziki. Aranzadi Zientzia-Elkartek, berriz, 1947an RSBAPen adar gisa jaio bazen ere, urteak joan ahala, bere ibilbide propioa urratu zuen, Historiaurre, Paleontologia, Arkeologia, Espeologia eta beste zenbait sailetan indusketa, ikerketa eta monografia erdugarriak bideratuz eta argitaratuz, J. Elozegi, J.M. Barandiaran, J.M. Apellaniz, J. Altuna eta besteren gidaritzapean.

Erakundeetan bitxienetakoa, agian, Academia Errante deituriko elkarte ibiltari eta heterogeneoa izan genuen. Batean eta bestean izandako bileren emaitza gisa lau liburu kaleratu zituzten 1963an: Los Caballeritos de Azcoitia; Homenaje a D. José Miguel Barandiarán; Lope de Aguirre descuartizado; eta Sobre la generación del 98. Hona hemen Akademia atipiko honetako partaide batzuk: Angel Cruz Jaka eta Luis Peña Basurto (eragileak), Elías Amézaga, José Arteché, Jose Antonio Ayestarán, José Miguel Barandiarán, Ignacio Barriola, José M^a Busca Isusi, Julio Caro Baroja, Estornés Lasa anaiak, Juan José Lasa, Luis Martín Santos, Luis Michelena, Josu Oregui, Luis P. Peña Santiago, Juan Ignacio Uría, Alvaro Valle Lersundi, Antonio Valverde, Federico Zabala, Ramón Zulaica, Ignacio Zumalde, etab.


Haatik, erakunde eta talde hauen eragina gutxietsi gabe, Euskal Herri mailako unibertsitatek ez izateak izugarri baldintzatzen zuen sasoi hartako produkzio kulturala; bestelako irakaskuntzan ere gutxitan egin ohi zen bertoko gai edo arazoei buruzko aipamenik, eta batzuetan hobe izaten zen guztizko isiltasuna derrigorean sinistarazi nahi ziguten ikuspegi ofiziala baino. Denbora askoan, beraz, gure kultur-lorpenik azpimarkagarrienak erabat amateurak ziren edo beste mila lanetan ziharduten pertso-

tras el Congreso que se celebró en Arantzazu en 1968.

Es preciso citar también dos instituciones de la posguerra: La Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (RSBAP) y la Sociedad de Ciencias Naturales Aranzadi. Como es sabido, la primera fue fundada en 1764 por el Conde de Peñafiorida, pero a principios de siglo, ésta, también conocida como la Sociedad de los Caballeritos de Azcoitia, se encontraba bastante debilitada y cuando se reorganizó en 1945, la nueva "Bascongada", aunque fuera a un nivel bastante primario, se esforzó en llenar el vacío que la Asociación de preguerra Eusko Ikaskuntza y la famosa publicación RIEV de Julio de Urquijo habían dejado, principalmente por medio de BRSBAP y EGAN. Por su parte, la Sociedad de Ciencias Aranzadi, que había surgido en 1947 como una sección de la RSBAM, con el tiempo, trazó su propio camino, por medio de la realización de excavaciones, investigaciones y trabajos monográficos en las áreas de Prehistoria, Paleontología, Arqueología, Espeleología y otras, bajo la dirección de J. Elozegi, J.M. Barandiaran, J. M. Apellaniz, J. Altuna y otros.

Una de las instituciones más curiosas fue tal vez la llamada Academia Errante, asociación itinerante y heterogénea. Publicaron cuatro libros en 1963 como fruto de las reuniones que mantuvieron: Los Caballeritos de Azcoitia, Homenaje a D. José Miguel Barandiaran, Lope de Aguirre Descuartizado y Sobre la generación del 98. Estos fueron algunos de los componentes de tan atípica Academia: Angel Cruz Jaka y Luis Peña Basurto (los incitadores), Elías Ameza-ga, José Arteché, José Antonio Ayestarán, José Miguel Barandiaran, Ignacio Barriola, José M^a Busca Isusi, Julio Caro Baroja, los hermanos Estornés Lasa, Juan José Lasa, Luis Martín Santos, Luis Michelena, Josu Oregui, Luis P. Peña Santiago, Juan Ignacio Uría, Alvaro Valle Lersundi, Antonio Valverde, Federico Zabala, Ramon Zulaica, Ignacio Zumalde, etc.

Sin embargo, sin menospreciar la influencia de estos grupos y asociaciones, el hecho de no contar con una universidad en Euskal Herria condicionaba en gran medida la producción cultural de aquella época. En otros niveles de enseñanza tampoco se hacían muchas referen-



Academia Erranteren argitaralpena, 1963.

Publicación de la Academia Errante, 1963.

na askoren ahalegin nekosoari zor izan diogu. Aipaturiko elkarte eta erakundeen bidez, edota apaizgai eta fraidegai gazteek 1960 aldera erdi-isilean argitaratzen zituzten aldizkari xumeen bitartez heltzen zitzaion arnasa pittin bat euskal hizkuntza eta kulturari. Egoera hau, beharrik, hobetuz joan zitzaigun aldika, 1960-1970 hamarkada aurrera zihoan heinean, eta —debe-kuak debeku, eta muga hertsu eta itogarriak ego-nagatik—, emaitza interesgarriak ezezik, noize-an behin fruitu bikainak ere eman zizkigun urte hauetako kultur-uztak.

Euskara batuaren arazoa.

Gure hizkuntzak kanpotik begiratuta zail-tasun kontaezinak bazituen, etxe barruan ere ez zeukan eragozpen faltarik. Euskaltzaindiak, bere sorreratik, helbururik nagusienetako euskara-ren batasunarena izan arren, gerra aurreko giro hipergarbizaleak ez zion Euskal Akademiari bide horretatik aurrera jotzeko aukera askotza-rik eskaini. Mendearen hasieran estatu estreina-tu berria zuten zenbait naziok —Finlandia, Txeko-slovakia, Polonia— edota estaturik gabeko beste zenbaitek —Katalunyak, esaterako— itxu-ra samarrean bideratu zuten arazoa guretzat buruhauste latza genuen; hizkuntza standar, bateratua lortzeak amets eskuraezina zirudien.

Alabaina, euskararen batasuna goiburutzat harturik, bide bat baino gehiago probatu zen gerraostean: R.M^a Azkuek proposaturiko gipuz-kerako osotaren ildotik abiatu zirenak ezezik —J. Zaitegi, J. Etxaide eta beste—, F. Krutwig, L. Villasante, E. Erkiaga, I. Berriatua eta abarrek → 1950 aldera hautatu zuten lapurtera kalsikoaren eredua ere ahalegin aipagarria izan genuen, J. Basterretxea Oskillasok Kurloiak (1962) ipuin-liburuan erakutsi ziguna ahortzi gabe. Azkenera orduko nagusitu zitzaiguna, baina, G. Arestiren Maldan behera (1960) eta Harri eta Herri (1964) poema-liburuetan, eta J.L. Alvarez Enparantza Txillardegiren Huntaz eta Hartaz (1965) saiake-ra-bilduman azaltzen den batasun-bidea izan zen.

Aipaturiko idazle eta liburu hauek ez ziren, jakina, euskara standarra gauzatu zuten

cias a temas o problemas vascos, por lo que, a veces, era mejor el silencio obligatorio al que nos sometían que la visión oficial que nos obli-gaban a creer. Por consiguiente, durante mucho tiempo los logros culturales más destacables se debieron al enorme esfuerzo de personas total-mente amateurs o dedicadas a diversas tareas culturales. La labor de las citadas asociaciones y la realizada por algunos seminaristas durante los años 60, por medio de sencillas publicacio-nes semiclandestinas, consiguieron reanimar un poco la lengua y la cultura vasca. Esta situación fue mejorando a medida que transcurría la década 1960-1970 y, a pesar de las prohibicio-nes y de las fuertes limitaciones, la cosecha cul-tural vasca de la década dio frutos interesantes e incluso excelentes .

El problema del euskara unificado.

Además de las innumerables dificultades externas a las que se enfrentaba nuestra lengua, los impedimentos internos eran también consi-derables. A pesar de que Euskaltzaindia, desde su creación, se había marcado como objetivo principal la unificación de la lengua vasca, el clima hiper-purista de la posguerra no ofreció a la Academia muchas posibilidades para conti-nuar con su tarea. Algunas naciones que habían estrenado estado a principios de siglo -Finlan-dia, Checoslovaquia, Polonia- u otras naciones sin estado, como Cataluña, por ejemplo, encau-zaron el mismo problema, que a nosotros nos creaba grandes quebraderos de cabeza, de forma parecida; conseguir una lengua normali-zada y unificada parecía un sueño inalcanzable.

Sin embargo, tomando como objetivo la unificación del euskara, los intentos de conse-guirlo fueron numerosos después de la guerra: además de los trabajos que siguieron la pro-puesta de R.M^a de Azkue sobre el guipuzcoano unificado —J. Zaitegi, J. Etxaide y otros— cabe destacar los realizados por F. Krutwig, L. Villa-sante, E. Erkiaga, I. Berriatua y otros, que toma-ron como modelo el labortano clásico, sin olvi-dar lo que J. Basterretxea Oskillaso mostró en su libro de cuentos Kurloiak (1962). No obstante, lo que al final prevaleció fue el camino de unifi-cación que se refleja en los libros de G. Aresti



Euskaltzaindiaren Kongresua
Arantzazun, 1968.

Congreso de la Academia de la
Lengua Vasca en Arantzazu, 1968.

bakarrak. Beste autore, ekintza eta urrats erabakior batzuk ere suertatu ziren euskara arautzeko zereginean. Nahiz eta bultzadarik nabarmenena idazle gazteengandik etorri, zenbait helduk ere (L. Villasante, K. Mitxelena, I. Berriatua, P. Altunak...) gogotik oratu zioten hizkuntzaren etorkizunerako hain beharrezkoa zen lantegiari. Prozesu horren garai hartako mugarririk inportanteenak, aldiz, ondorengo hauek lirategi: 1) Baionan 1964an eginiko bileran idazle-talde batek hartutako erabakiak; 2) 1968an idazle-talde ugariago batek Ermuan egindako batasun-zina; eta 3) urte bereko urriaren 3tik 5era Euskaltzaindiak Arantzazun ospatutako Biltzarra.

Batasunerako ibilbidea ez da burruka, lis-
kar eta akatsik gabekoa izan, baina, oro har, 25-
30 urteotan esparru horretan aurreratu denari
esker euskararen iraupenerako oinarri sendoak
ipini dira, bere hedapenerako lurra aski ongi
prestatu da, eta gure mintzaira bizitza moderno-
aren preminetara egokitzen jakin izan da. Har-
tarako Euskaltzaindiaren gidaritzza eta itzala
ezinbestekoak gertatu ziren, noski, baina gure
historia gatazkatsuaren bidegurutze hartan Aka-
demiak idazle eta euskaltzaleen presioa jasan
izan ez balu, batasuna askoz astiroago eta
motelago bilakatu zatekeen, inolako zalantzarik
gabe.

Arlo honetan nahiz beste zenbaitetan
egungo belaunaldi gazteak normaltzat jotzen
dituen gauza asko orduko belaunaldien —bat
baino gehiago izan baitzen— lan eskergari zor
dio. Eta artean ametsen erresuman erdi-lotan
zeutzan ideia eder asko orain egia bihurtzen ari
dira irakaskuntza, administrazio, merkataritza
eta komunikabideetan, gizon-emakume haiek
lanabesen zorrozteaz arduratu zirelako.

Ikastolak / Alfabetatze-Euskalduntzea.

Euskal Herriko hizkuntza ordura arte bitxi-
keria polit baina erabilkaitz moduan ikusi bal-
din bazen sarritan, 1960 inguruko euskaltzale
batzuk, behinolako Lizardiren desioa mamitze-
ko, plangintza serioa egituratzen hasten dira,
hots, euskara zernahitara egokitzen eta zernahi-
tara zabaltzen. Batasuna abian jartzea izan zen

Maldan behera (1960) y *Harri eta Herri* (1964) y
en la recopilación de ensayos de J.L. Alvarez
Enparantza *Txillardegia* Huntaz eta *Hartaz*
(1965).

Pero los autores y obras citadas no fueron,
claro está, los únicos que desarrollaron el eus-
kara estándar. Hubo otros autores, acciones y
fases decisivas en la tarea de normalizar la len-
gua vasca. Aunque los impulsos más notables
los dieron los escritores más jóvenes, hubo
autores maduros que trabajaron en esa labor tan
necesaria para el futuro del euskara (L. Villasante,
K. Mitxelena, I. Berriatua, P. Altuna...). Los
hitos más importantes de ese proceso en la
etapa que nos ocupa fueron los siguientes: 1)
Las decisiones que tomó un grupo de escritores
en la reunión que se celebró en Baiona en
1964; 2) El juramento de unificación que prestó
un número más nutrido de escritores en Ermua
en 1968; 3) El Congreso que Euskaltzaindia
celebró en Arantzazu del 3 al 5 de octubre del
mismo año.

El recorrido realizado hasta la unificación
ha estado lleno de divergencias, enfrentamien-
tos y errores, pero en general, gracias a los
pasos que se han dado en ese sentido durante
los últimos 25-30 años se han podido sentar las
sólidas bases que han favorecido la perdurabili-
dad del euskara, se ha podido preparar bien el
terreno para su expansión y se ha podido ade-
cuar el euskara a las necesidades lingüísticas de
la vida moderna. Para todo ello las directrices
de Euskaltzaindia y el respeto hacia esta institu-
ción han sido imprescindibles, pero no cabe
duda de que si en aquella encrucijada de nues-
tra conflictiva historia la Academia no hubiera
tenido que soportar la presión de escritores y
vascófilos, la unificación habría sido mucho
más lenta y pausada.

Muchos de los triunfos que la generación
joven actual considera normales se han conse-
guido gracias a la enorme labor realizada por
las generaciones de aquella época -ya que
había más de una-. Y muchas de las hermosas
ideas que permanecían aletargadas y que,
entonces, pertenecían al mundo de los sueños,
se están haciendo realidad en estos momentos,
en el campo de la enseñanza, en el de la admi-
nistración, del comercio y de los medios de
comunicación, porque aquellos hombres y

egokitzerako lehen pausua; tresna hobetu eta modernizatu ahala, gizartera hedatzen saiatu ziren hurrengo.

Euskararen irakaskuntza eta zabalkundean bi erakunde (bi mugimendu, hobeki esan) nabarmenduko dira: Ikastolak eta Alfabetatze-Euskalduntze kanpainak. Ikastolak gerra aurrean sortu ziren arren, guduak, lehertu bezain laster, jaio berria genuen landare hura bat-batean ito eta ihartu zuen; gerra ondoren "ikastola" hitza bera eragotzia zegoen, eta Elbira Zipitriak (Donostia), Julita Berrojalbizek (Bilbo) eta beste andereñoren batek eratu zituzten eskola heroiko haiek erabat bakanak eta ezkutukoak izan ziren. Baina ikusten dihardugun hamarkada honen erdi aldera —batez ere, baldintza politikoak zerbait bigundu eta egoera ekonomikoa bizitu zen heinean— ikastolek aurrerakada nabaria egin zuten ikastetxe- nahiz ikasle-kopuruari begiraturik: 1960/61 ikasturtean 3 ikastola soilik ari ziren (Gipuzkoan bakarrik), guztira ehunen bat ikaslerekin; 1970/71 ikasturtean, ordea, ikastetxeak 120 inguru ziren, ikasleak 12.000 eta Euskal Herriko lurralderik gehienetan kokaturik zeuden. Ugaltze ikaragarri honen arrazoi nagusienak herri-ekimenean (guraso eta herritarren euskaltzaletasunean), hainbat andereño eta irakasleren borondate eta ahalegin sutsuan, eta, zenbait kasutan, elizak, enpresak edo beste erakunderen batek luzatutako babesean eta laguntasunean bilatu behar dira; agintari ofizialek ez zuten eskuarki inolako erraztasunik eman, eragozpenak eta oztopoak ipini baizik.

Haurrentzako irakaskuntza baino geroxeago eta astiroxeago iritsi zitzaigun helduentzako Alfabetatze-Euskalduntzea. Dena den, mugimendu hau ere besteokin bateratsu abiatu zen: aurreratxoago aztertuko diren aldizkarien berrikuntzak eta liburugintzaren ugaltzeak behar adinako fruituak ekar zitzaizten, derrigorrezkoa zen batetik euskaraz eskolatu gabeko euskaldun helduei irakurtzen eta idazten irakastea, eta bestetik etxean euskara ikasterik ez zuten euskalerritarrei hartarako aukerak ematea. Orobat hizkuntzaren batasun-prozesuak ere samurtu egin zuen ordura arte zailtasunez josita ageri zen irakaskuntza hura.

mujeres se encargaron de afilar las herramientas para que aquello fuera posible.

Las Ikastolas / Alfabetización-Euskaldunización.

A pesar de que la lengua de Euskal Herria fuera considerada hasta entonces como una rareza bella pero inútil, varios vascófilos de los años 60, con el fin de plasmar de una vez por todas el deseo de Lizardi, comenzaron a trazar un plan importante, el de adecuar el euskara a cualquier área del saber y el de difundirla. El primer paso para la adecuación fue la puesta en marcha de la unificación; el siguiente, su difusión, una vez mejorado y modernizado el vehículo.

En el terreno de la enseñanza y de la difusión del euskara es preciso destacar dos movimientos: *las Ikastolas* y *las Campañas de Alfabetización-Euskaldunización*. A pesar de que las Ikastolas surgieron antes de la guerra, ésta, en cuanto estalló, se encargó de arrancar la flor que acababa de nacer; después de la guerra, se prohibió incluso el uso de la propia palabra "ikastola", y aquellas heroicas escuelas creadas por *Elbira Zipitria* (Donostia), *Julita Berrojalbiz* (Bilbao) y otras andereños fueron escasas y totalmente clandestinas. Pero en la mitad de la década que nos ocupa, sobre todo, a medida que las condiciones políticas se fueron suavizando y la situación económica comenzaba a recuperarse, las ikastolas progresaron notablemente, en lo que a centros y a número de alumnos/as se refiere: durante el curso 1960/61 sólo había tres ikastolas (en Gipuzkoa), con un número aproximado de cien alumnos; durante el curso 1970/71, había ya alrededor de 120 ikastolas con 12.000 alumnos/as, diseminadas a lo largo de todo el territorio de Euskal Herria. Los motivos principales de este impresionante avance hay que buscarlos en la iniciativa popular (el amor al euskara de padres/madres y ciudadanos/as), la voluntad y el esfuerzo ardiente de profesores/as y, en ciertos casos, en el patrocinio y la colaboración prestadas por la iglesia y algunas empresas e instituciones; en general, las autoridades oficiales en lugar de dar facilidades, no hicieron más que poner trabas e impedimentos.

Han-hemenka, talde txikitan, baziharduten irakasle saiatu batzuek gure hizkuntza irakasten: Xabier Peña Bilbon, Peli Lopez Presa Gasteizen, Nemesio Etxaniz Donostian, etab.; gerotxoago azaldu ziren Jon Oñatibiaren Euskera Irrati bidez / Método de euskera radiofónico (1965) edo Patxi Altunaren Euskera, ire laguna! (1967), arrakasta handia izan zuten irakasbideak, behin eta berriro argitaratu zirelarik.

Alfabetatze-Euskalduntze kontzeptua eta mogimendua Rikardo Arregik gorpuztu zituen, beste arlo askotan bezalaxe honetan ere plangintza eta antolamendurako zeuzkan dohain bereziak frogatuz; 1966an hasiz, era xume baina militantean, herririk herri hedatu zen Rikardok eta bere taldeak sortutako mogimendua. Urte hits haietan edozer gauza burutu ahal izateko, norbaiten itzalpean aritu beharra zegoenez, Euskaltzaindiak eskuratu zion babes (1968) denboraren buruan euskararen berreskurapen eta zabalkunderako hain erabakiorra izango zen ekimenari. Alfabetatze-sailean baita ere —baina erdal eskoletan ikasten zuten ume euskaldunei zuzenduak— kokatu behar dira Jose Antonio Retolazak bideratu zuen KILI-KILI izeneko aldizkaria (1966) eta eratu zituen ikasleentzako lehiaketak.

Aldizkariak.

Garai hartako komunikabideak estu-estu eta kate motzean lotzen zituen gobernuak. Zentsurak oraindik berebiziko eragina zeukan kaleratzen ziren argitalpen guztietan. Hamarkada hasieran, ez egoteagatik, astekaririk ere ez zegoen Hego Euskal Herrian. Iparraldean HERRIA publikatzen zen 1944az gero, ESKUALDUNA zaharraren jarraitzaile gisa. Hegoaldean, oster, majo kostatu zen 1954tik kaputxinoen izenean aurkitzen zen ZERUKO ARGIA errebista erlijiosoa astekari bihurtzea (1963). Harrez gero aldizkari horrek —ARGIA soilik deitzen dela 1980tik aurrera— etenik gabe jarraitu du euskal gizartea ispilatzen eta munduko albisteak gureganatzen. Egia esan, agintearen bedeinkapen osorik ez zuten aldizkariak informazio orokorra ematea debekatu egiten zitzaient eta,

Los programas de *Alfabetización-Euskaldunización* de adultos llegaron un poco más tarde y se desarrollaron con más lentitud que la educación infantil en euskara. De todas formas, este movimiento comenzó a la vez que los anteriores: para que la renovación de las publicaciones periódicas y el desarrollo del mundo editorial, que analizaremos más adelante, dieran frutos suficientes, era necesario, por una parte, que los adultos vascoparlantes que no se habían alfabetizado en esa lengua aprendieran a leer y a escribir en euskara y, por otra, que las personas que no podían aprender euskara en sus casas pudieran hacerlo en un centro. En definitiva, el proceso de unificación de la lengua contribuyó a suavizar el terreno de la enseñanza que, hasta entonces, no había tenido más que dificultades.

Comenzaron a surgir de forma desperdigada grupos pequeños formados por profesores aplicados en la enseñanza de nuestra lengua: *Xabier Peña* en Bilbao, *Peli Lopez Presa* en Vitoria-Gasteiz, *Nemesio Etxaniz* en San Sebastián, etc.; más tarde aparecieron métodos como *Euskera Irrati bidez / Método de euskera radiofónico* (1965) de *Jon Oñatibia* o *Euskera, ire laguna!* (1967) de *Patxi Altuna*, que tuvieron gran éxito entre el público y que fueron reeditados en numerosas ocasiones.

Fue *Rikardo Arregi* quien ideó el concepto y organizó el movimiento de la *Alfabetización-Euskaldunización*, plasmando en este campo, al igual que en otros muchos, sus capacidades de planificación y organización. El movimiento que crearon Rikardo y sus compañeros comenzó en 1966 de forma simple pero militante, y se difundió poco a poco por muchas localidades. Dado que en aquellos tiempos difíciles no había forma de llevar a cabo un proyecto sin ayuda alguna, fue *Euskaltzaindia* quien ofreció su apoyo a esta iniciativa que, con el tiempo, sería tan decisiva para la recuperación y la difusión del euskara. La revista *KILIKILI* de *José Antonio Retolaza* y los concursos que creó para estudiantes, deben situarse en el área de la *Alfabetización*, pero en programas dirigidos a niños/as vascoparlantes que estudiaban en escuelas en las que no se enseñaba la lengua.

ondorioz, bertoko berriak ezin ziren tratatu, edota zeharka eta itzulinguruka ibili beharra zegoen. Z. ARGIA talde heterogeneo samarra aritu zen lehen urteotan, euskaltzaletasunaren lokarriaz elkarturik: Antonio M^a Labaien, Nemesio Etxaniz, Karlos Santamaria, Jose Artetxe, Jon Etxaide, Iñaki Eizmendi Basarri, Juan San Martín, Iñaki Beobide, Rikardo Arregi, Mikel Lasa, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Begoña Arregi, Mari Karmen Garmendia, Xabier Lete, Arantxa Urretabizkaia, Joxemi Zumalabe, Rafa Egiguren; beraz, zahar, gazte eta gazteagoak batera, baina ez nahasian, bakoitzak, gutxi gorabehera, bere saila, zutabea edo orria baitzuen. Denontzat, eta gerra ostean jaiotako belaunaldiarentzat bereziki, trebatze-leku aproposa gertatu zen Donostiako kaputxinoetan —Agustin Ezeiza eta Antonio Iturriaren zuzendaritzapean lehendabizi, Miren Jone Azurzarenean hamarkadaren azken aldera— egituratzen zen astekari hura.

Bere muga, akats eta guzti, Hegoaldeko euskaldungo txikiak Z. ARGIAren orrialdeetan elkargunea eta topalekua aurkitu ahal izan zuen. Idazle helduagoek zintzo asko astero betetzen zituzten sailak arbuizatzeke, gogoan ditut Rikardo Arregik, Joxe Manuel Toledo, Mikel Lasa eta beste banaka batzuen lankidetasunez, moldatzen zuen Nazio-arteko unea deituriko orrialdea, eta Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola eta abarrek taiutzen zuten Gazte naiz izenekoa. Beti zentsurak ezartzen zituen neurri hertsietara errenditu ezinik, han irakurtzen genituen artikulua ez oso borobilak, apika, baina hizkera periodistiko berria itxuratzen ari zirenak.

Etenaldi eta aldaketa gehiagoko bizimodua izan zuen ANAITASUNA aldizkariak (1953-1982): frantziskotarren —eta aldi batez Euskaltzaindiaren— babespean plazaratu zen, bizkaieraz gehienetan eta Bizkaiko irakurlegoari zuzendua batez ere; 1970-1980 urteetan euskarra batuaren aitzindari bilakatu zen eta aurreko hamarkadan baino sarriago eta jantziago publikatzen zuten, 1982an desagertu zen arte. Azken aldian oso bestelako pentsakera eta idazmoldea erakusten bazuen ere, GOIZ-ARGI (1958-1986) aldizkaria ere tankera beretsuan jaio zitzaigun:

Revistas.

En aquella época, el gobierno controlaba fuertemente y muy de cerca los medios de comunicación. La censura influía enormemente en todas las publicaciones que veían la luz. Así, a comienzos de la década en Euskal Herria, por no haber, ni siquiera había una sola publicación semanal. En Euskadi Norte, desde 1944, se publicaba la revista *HERRIA*, heredera de la antigua *ESKUALDUNA*. En Euskadi Sur, costó un enorme esfuerzo convertir la revista religiosa *ZERUKO ARGIA*, que desde 1954 figuraba a nombre de los capuchinos, en publicación semanal (1963). Esta revista, que desde 1980 se denomina *ARGIA*, ha continuado con la labor de reflejar la sociedad vasca y de dar cuenta de los acontecimientos mundiales. Ciertamente, estaba prohibido que estas publicaciones, que no contaban con la bendición de las autoridades, ofrecieran informaciones generales, y a consecuencia de ello, no podían tratar sobre temas locales, por lo que en muchas ocasiones las noticias se redactaban de forma muy sesgada y mediante rodeos. En los primeros años de *Z. ARGIA* colaboró un grupo heterogéneo de escritores, a los que les unía su amor por la lengua y la cultura vascas: Antonio M^a Labaien, Nemesio Etxaniz, Karlos Santamaria, José Artetxe, Jon Etxaide, Iñaki Eizmendi Basarri, Juan San Martín, Iñaki Beobide, Rikardo Arregi, Mikel Lasa, Ramón Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Begoña Arregi, Mari Karmen Garmendia, Xabier Lete, Arantza Urretabizkaia, Joxemi Zumalabe, Rafa Egiguren. De este modo trabajaron viejos y jóvenes, juntos y separados, pero sin mezclarse, ya que cada uno de ellos contaba más o menos con su sección, su columna o su página. Aquel semanario, que se gestó en los capuchinos de Donostia, en un principio, bajo la dirección de Agustin Ezeiza y de Antonio Iturria y que al final de la década, fue dirigido por Miren Jone Azurza, fue para todos, y en especial para las generaciones de la posguerra, un lugar idóneo para la formación.

Con todos sus fallos y limitaciones, las páginas de este semanario constituyeron un lugar de encuentro y de reunión para los vascoparlantes de Euskadi Sur. Los escritores más viejos completaban sus secciones cada semana

Arantzazuko fraideen eraginpean; gerora, ordea, bere ibilbide propioa urratu zuen.

Alor berezituagotan eta urtean zehar bakanago argitaratzen ziren beste kultur-aldizkari batzuek ere jardun zuten garai hartako gabezia latza estali guran. Jokin Zaitegik Guatemalan ekin eta Miarritzen jarraitu zuen abentura kulturala, hots, EUZKO GOGOA aldizkari apainak (1950-1959), Hegoaldera igarotzeko zeuzkan zailtasunak zirela bide, zorrez itota, azken arnasa eman berria zuen. Haren ordezkoa izateke, aski desberdina baitzen alderdi askotatik, beste aldizkako publikazio batek bete zuen hein batean Zaitegirenak utzitako eremua: BRSBAPen eranskin literario eran 1948an argia ezagutu zuen EGAN aldizkariak, alegia; elebiduna 1954.era arte, euskara hutsean atera da harrez gero urte askoan, J. Urkijo Mintegiko Antonio Arrue, Aingeru Irigarai eta Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean lehenengo, eta Juan San Martin, Iñaki Zumalde eta Luis M^a Mujikarenean azken aldera; aipaturikoen idazlanez gainera, Jon Etxaide, Gabriel Aresti, Nikolas Alzola eta beste hainbat idazleren poesia, ipuin, teatro-lan, nobela labur edo saiakerak irakur genitzakeen EGANen orrialdeetan.

*Literaturari dagokionez, eta poesia-sailari bereziki, aurrekoarekin batera aparteko tokia merezi du, Aita Santiago Onaindiak 1959an sorturik, hurrengo hamarkadan liburuska tanke-
ran azaltzen zen OLERTI aldizkariak; lehen epean poeta inportanteen lanak agertu ziren Larreatik iristen zitzaigun errebista lirain hartan: beste askoren artean, Xabier Dihartze Iratzeder, Juan San Martin Otsalar, Sabin Muniategi, Bitoriano Gandiaga eta Joxe Azurmendiren olerkiak, Jon Mirande eta Gabriel Arestirenak ere bai inoiz, eta Santi Onaindia berarenak, noski. Eta Mirandek hizpidea ematen digularik, esan dezakegu Pariseko idazle honi, Txomin Peillen her-
kide eta adiskidearekin batera, otu zitzaion asmoak ere merezi duela aipamentxoa; hau da, 1962-63tan artesau-eran kaleratu zuten IGELA Euskaldun heterodoxoen errebistak; sei zenbaki ateratzea lortu zuten, eta, sasoi hartako euskaldunon egoera eta pentsakera sozio-politikoak halakoxeak zirelako, demaseko arrakastarik*

con diligencia y sin rechistar. Recuerdo cómo *Rikardo Arregi, Joxe Manuel Toledo, Mikel Lasa*, componían, con la ayuda de algún otro, la página llamada *Nazio-arteko unea* y cómo *Ramón Saizarbitoria, Ibon Sarasola* y el resto del equipo realizaban la sección llamada *Gazte naiz*. Siendo casi imposible rendirse a las fuertes medidas que dictaba la censura, podíamos leer artículos no demasiado bien elaborados, pero que tal vez, fueran configurando el lenguaje periodístico actual.

La revista *ANAITASUNA* tuvo una trayectoria más irregular y cambiante (1953-1982). Se publicó con la ayuda de los franciscanos y de Euskaltzaindia en dialecto vizcaíno y dirigido al público vizcaíno especialmente; en la década 1970-1980 se convirtió en la publicación pionera del euskara unificado y se publicó con más frecuencia y más calidad que en la década anterior hasta desaparecer en 1982. Aunque en su etapa final mostraba una concepción y una escritura diferentes, la revista *GOIZ-ARGI* (1958-1986) nació de un modo parecido: bajo la tutela de los frailes de Arantzazu; más adelante, trazó su propia trayectoria.

Hubo más publicaciones culturales que surgieron con el deseo de satisfacer las necesidades imperantes de la época, que cubrieron otras áreas de la cultura y que se publicaron de un modo más esporádico. Una de ellas fue la elegante revista *EUZKO GOGOA* que *Jokin Zaitegi* creó en Guatemala y con cuya labor continuó en Biarritz (1950-1959). Desgraciadamente la publicación desapareció debido a las dificultades económicas que tuvo para publicarla en Euskadi Sur. Sin deseo de ser su heredera, puesto que en muchos sentidos difería de ella, pero con el deseo de ocupar el vacío dejado por la revista de Zaitegi, en 1948 surgiría la publicación periódica *EGAN*, como suplemento literario del *BRSBAP*. Fue bilingüe hasta 1954 y a partir de entonces se publicó sólo en euskara durante mucho tiempo, primero bajo la dirección de *Antonio Arrue, Aingeru Irigarai* y *Koldo Mitxelena*, miembros del Seminario J. Urquijo, y más tarde bajo la batuta de *Juan San Martin, Iñaki Zumalde* y *Luis M^a Mujika*; además de las colaboraciones de los autores mencionados, pudimos disfrutar de poesía, cuentos, obras de teatro, novelas cortas y ensayos de autores

gabe; baina euskarazko lehenengo aldizkari satirikoa izatearen meritua ez die inor ukatuko.

Hizkuntzaren alorrean, aldiz, Bilbon Euskaltzaindiak 1956an EUSKERA aldizkaria birrargitaratzeari ekin zion, urte askoan Alfonso Irigoien izan zelarik argitalpen honen zuzendari; Donostian ASJU urtekaria (Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo") prestatzen zen Manuel Agud eta Luis Mitxelenaren ardurapean; eta hamarkadaren amaieran (1969) Nafarroako Principe de Viana erakundeak FONTES LINGVAE VASCONUM kaleratu zuen Iruñean. Zorionez, hirurok bizirik eta osasuntsu segitzen dute gaur egun, eta, horri esker, euskal hizkuntzalaritza eta filologiari buruzko lanik bikainenak aldizkari horien bitartez ezagutarazi zaizkigu azken 30-35 urteotan.

